

Javi Pérez, R. Sociedadeko Idazkari teknikoa:

"Euskal Futbolarentzat ona da Reala igo izana"

Bigarren mailako futbol liga Txapelketa irabazi eta igoera lortu berritan hartu gaitu Realeko idazkari teknikoa. Ermuarra dugu bera. Eibarren eta Alavesen aritu ostean, orain dela urtebete iritsi zen Donostiako taldera eta denboraldi bikaina burutu eta gero, lehen mailara igotea lortu dute. Futbolaren mailarik gorenean arituko dira datorren urtetik aurrera. Ospakizunetan murgilduta, berarekin egon gara.

- **Igoera lortu duzue. Zer moduz?**

Oso pozik, erabat txoratu da egia esan. Reala lehen mailara igozteko oso pozgarria izan da zaletu, jokalaria, talde eta oro har euskal futbolarentzat. - **Zein zenuen gogoan igoera lortu zenutenean?**

Jende asko. Batik bat beti ondoan izan dudana emazte, seme-alabak, guraso eta asko sufritu duten jokalaria eta

lankide mordo bat.

- **Urtebete da etorri zinela. Zein izan da zure lana?**

Idazkaritza teknikoan egin dut lana Lorenzo Juarros 'Loren'ekin batera. Taldea osatu, egin beharreko fitxaketak egin, jokalaria berrien jarraipena, datorren denboraldia diseinatu..., horiek izan dira nire egitekoak.

- **Taldeak maila bikaina erakutsi du...**

Hiru urte eman ditu bigarren mailan eta aurtengo presioa handia zen. Mailaz igozteko zen hasieratik helburu nagusia eta azkenean ametsa egi bihurtu da. Denboraldia oso gogorra eta luzea izan da. Denboraldi hasieran, zalantza asko zeuden, jendea atsekabetua zegoen taldearekin, ilusiorik gabe. Denborarekin, lan ona egin ostean, gauzak bide onetik joan dira.

- **Zein izan da igoeraren gakoa?**



Ingurutik eta zaletuengandik mailaz igozteko grina gureganatu ez izana. Jokalariek eta entrenatzaileak batik bat, oso argi izan dute igoera lortu bitarte, lanean segi beharra zegoela eta hala egin dute. Aurtengo bigarren maila, sekula baino berdinduago egon da. Azken jardunaldia arte ez dira erabaki igoko edo jaitziko ziren taldeen izenak.

- **Datorren urtean lehen mailan...**

Azken urteotan etorkizunerako taldearen oinarriak eraikitzen ibili gara lanean eta uste dut urteetarako oinarria eraiki dugula. Lehen maila beste maila bat izan arren, egingo ditugun fitxaketek taldea osatu egingo dute, baina oinarria aurtengo taldea izango da.

- **Hainbeste ospakizunen**

ostean, oportetarako astirik baduzu?

Lan asko aurreratu dugu denboraldian zehar. Pare bat asteko tarte hartuko dut, baina denboraldi hasiera hila eta erdi eskasera hasiko zaigunez, berehala itzuli beharko naiz lanera.

- **Munduko Futbol Txapelketa jarraitzeko asmorik?**

Partidu guztiak grabatu eta aztertu egin beharko dira. Beti agertzen da jokalaria interesgarriren bat eta aukera ona eskaintzen du gure jomugan dauden beste zenbaiten lana aztertzeko.

- **Nor ikusten duzu faborito?**

Espainiako selekzioa beste gainetik dagoela uste dut. Kontuz halere Italia, Argentina eta Brasilekin.

Asier Ibaibarriaga

blush

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

KIROL MEDIKUNTZA

indartu

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA · KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net